



# MUSIKA ETA BERTSOA LEHEN LAUHILEKOAN

Musika kontzertuek eta bertso jaialdiek izango dute garrantzia Tolosako kultur egitarauan, urte hasieran >5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2009-01-24

VII.URTEA 1.611.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzo egin zuten Udal Gobernuako kideek aldaketa berriaren aurkezpena. I.T.

## Udal zergen igoera KPIren arabera izatea onartu du Udalak

**TOLOSA** Aurrekontuetan %4,9ko igoera aplikatzea onartu bazuten ere, atzera egin dute, eta azkenean, 1,9koa aplikatzea adostu dute 4

## Madrilgo Gobernuak onarturiko diru laguntzekin, bost proiektu berri Tolosan 4

JOSE MARI AGIRRE AHOLKULARI EKONOMIKOA

«Etxeko lanak ongi egin ditugu, baina krisia gurera ere etorriko da»

**TOLOSA** Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren aholkulari ekonomikoa da; krisiaz aritu da 2



N. URBIZU

**Zaldunita  
Bezperako  
danborradan  
aldaketak  
egin dituzte**

**TOLOSA** Ekitaldiari indarra emateko, orduz aldatu dute 5

**Amaiur  
gogoratzeko  
ekimenarekin  
bat egin du  
Leitzak ere**

**LEITZA** Bat egite testua onartu du Udalak 7

**GIPUZKOAKO MOZORRO DENDARIK HANDIENA**

**Jaiak**

Elbarrena Industrialdea  
Tel.: 943 888 232 Zaldibia

Majori 12, Ordizia  
"Umeen denda"

www.JAIKDENDA.com

**IHAUTERIAK 2009**



## E Elkarrizketa

JOSE MARI AGIRRE &gt; Lehendakariaren aholkulari ekonomikoa



NEREA URIBIZU

# «Krisia gurera ere etorriko da baina etxeko lanak ongi egin ditugu»

**Tolosa** » Jose Mari Agirre aholkulariak gure herriaren ekonomia, Europakoa eta mundu guztikoa aztertzen ditu.

## ASIERIMAZ

Ondorengoa ez da elkarrizketa bat. Ez da txokolate edo kafe baten inguruko tertulia bat. Bien arteko zerbitu da. Juan Jose Ibarretxe Lehendakariaren aholkulari ekonomikoa da Jose Mari Agirre (Ataun, 1943), Tolosan 1978. urtetik bizi den gizasemea. Krisia gora eta krisia behera dabilen honetan...

**Lehendakariaren aholkulari ekonomikoko batek nola bizi du egoera hau?**

Bi gauza esan behar direla uste dut. Alde batetik, azken 14 urteetan ekonomoki hazkunde handia bizi izan dugula; garai hartan 25 urte zituenak beraz, hazkuntza ekonomikoa besterik ez du ezagutu. Bestalde, Lehendakariak askotan esaten duena: etxeko lanak eta ariketak ondo egin direla.

**Horrek zer esan nahi du?**

Irabazi pixka bat eskuartean izan dugunean, zorrak ordaintzen ahal izan direla, gure gurasoek egiten zuten bezala. Horregatik, gaurko egunean zorrak biltzeko moduan ere bagaude. Zertarako?

Gaurko perspektibak ikusita, zorrak egin beharrean gertatuko garelako. Lehenago zorrak arindu baldin badituzu, bai inbertsioetarako eta baita zerbitzu sozialak eman ahal izateko, mesedegarri gertatuko litzateke zorra arinduta edukitzea edo berriro zortzeko moduan egotea.

**Krisi kapitalista honek euskal herriarren artean zein eragin edukiko du?**

Zipriztinak iristen ari dira. Hala ere, langabezi maila oraindik ia teknikoak daukagu. 2008ko hiruhilabetekoan %3,5an zegoen langabezi tasa. Nahiz eta goraka ari den, oraindik emaitza baxuetan gaude. Euskadiko Kutxaren azterketak dioten bezala, euskal ekonomia %0,6 igoko omen da 2009an. Beraz, ez da atzerakadarririk izango. Confebaskek antzekoa dio: %0,6 igoko omen da euskal Barne Produktu Gordina eta langabezi tasa, gehienez ere, %6ra igoko omen da; 10.000 langabe gehiago izango omen ditugu. Nik eskenategi hau sinatuko nuke; kri-

sia horrela pasatzea gaitzerdi izango litzake. Hala ere, gauza bat baieztatu beharra dago umiltasunez, hona ere iritsiko dela eta astuna izango dela, batez ere langabezia igotzen bada. Baina, beste lekutan bezain astuna ez dirudi izango denik. Aipatu parametroak adierazten dute EAEn beste lekutan baino arinagoa izango dela krisia. Noski, krisi ahulena ere nahikoa gaiztoa da sufritzen duenarentzako, batez ere beti noiztzea tokatzea suertatzen zaionari.

**Kapitalismoa azken egunetan al dago?**

Ez dut uste sistema berez azken egunetan dagoenik; europar batek ez du ordezko sistemarik ikusten edota amesten, ezta euskal herritar batek ere, nire iduriko. Balitz eta balegoetan ez dute sindikatuek sinesten; alternatibarik ez baitago, edo ez da nabaritzen gu bizi garen paradisu honen erdian, Europar Batasunean. Alternatiba finkorik edo jakinik balego, orduan esan liteke begira: hau ordezkatzeko zer bait badago, irudikatzen da, sistema bat badago. Baina ez dut uste nik gaurko egunean gizarteko jende batek hori sumatzen duenik. Ez dut uste.

**Baina aldi berean sistema honek ekarri gaitu egoera honetara.**

Harropuzkeriak, kontrolrik ezak,

kontsumismoak..., ekarri gaitu egoera honetara. Inmobiliariak eta erakunde finantzarioek eraman gaituzte porrot honetara. Ekonomilari nobel saridun asko; Reinhard Selten, Robert E. Lucas, Joseph E. Stiglitz eta Edmund S. Phelps besteak beste, hasi dira esaten, pentsakera berri bat behar dela... jarrera bortitzagoa behar dela, alegia, kontrol gehiago eta zorroztzagoa. Baina erreformaz ari dira, sistema aldatzeaz baino gehiago, nire ustez. Kapitalismoak noizbehinka izaten ditu horrelako krisialdiak; zikloak asmatuta daude, aspalditik gorakakoak eta beherakakoak daude. Garai batean baten ordezkatzeko sistema alternatibo bat, kapitalismoaren aurrean baten beste sistema bat: komunismoa edo sozialismo erreala, baina hark erabat porrot egin zuen 1989an. Orain berriz, gobernu guztiak sistema salbatzera joan dira. Horretan diru publikoa erabilteza? Sindikatuek salatu duten bezala, nire ustez kritikagarria da eta hori kritikatu beharra dago.

**Erreformatik haratago, hainbat ezkeriarrek kapitalismoaren heriotza datorrela diote.**

Kapitalismoak porrot egin du, baina sistema bezala? Sobiet Batasunaren garaian alternatiba bat edo ordezkaritza bat egon zitekeen.

Baina sistema horrek, komunismoarenak, porrot egin zuen. Gaur egun mundu guztiak onartzen du kapitalismoa krisian dagoela. Lotsagarria da hainbeste diru publiko, kontrolrik gabe ibili direnei bideratzea. Ez dut uste europar batek ordezko alternatibarik ikusten duenik sistema bezala; nik ez dut hori sumatzen. Pulpitutik esatea erraza da, baina kalean, etxean edo lanean hori defentatzea zailagoa da. Gaurkoz ez du inork sinesten sistema alternatiborik egon litekeenik, ez Europan eta ez Eskandinavian; han asmatu zuten hirugarren bidea, erreformarena, sozial demokraziarena.

**Baina egunen batean...**

Egunen batean kapitalismoak porrot egin dezake goitik behera, eta une hortan iritsiko da sistema ordezkatzeko ordua. Nik uste dut ordezkatzeko ereduak, aurrez eduki behar duzula landuta. Aurrez sinestu egin behar duzula, gero meztabolizatu eta gizartea eralda daitekela konbentzituruta egon. Eta hori Europan ez da inon ikusten. Hirugarren munduan?

**Venezuela, Bolivia, Cuba,...**

Baina horiek eredu garriak al dira europar batentzako? Edo euskaldun batentzako? Ez dut uste langile europar bat alternatiba horren zain dagoenik.

KRISIA (I)



**Zenbait asko kostatzen zaio EAeren sistema ekonomikoa kapitalista dela esatea.**

Euskal Autonomia Erkidegoko sistema ekonomikoa kapitalismoaren legeak errespetatzen ditu. Besteak beste, nazioarteko ekonomia eta europar ekonomia gaur egunean kapitalista delako. Eta gu behartuta gaude nazioartean joku horretan sartzea. Erreferentzi bezala guk, euskaldunok, Europar Batasuna dugu eta ezin gara hortik kanpo ibili. Gure jokolekua Europako Batasuna da. Gu ez gaude hirugarren munduan...

**Nork behartzen gaitu joku horretara?**

Gure gizarteak. Gizarteak derrihortzen gaitu. Lau urtez behin izaten dira hauteskundeak eta gizarte bakoitzak bere eredu hautatzen du. Hori da demokrazia! Zuk nola esango diozu jendeari geroz eta ongizate gehiago nahi duenean, hori ez dela posible. Denok nahi dugu libertate gehiago, eskubide gehiago eta justizia gehiago. Denok ongizatearen bila gabilta, denok. Soziologo frantses batek hala dio: eskubiko eskuarekin libre utzi behar da enpresa, aske utzi behar

2010etik aurrera eguzkia aterako dela. Nik ez dut uste profetia hauek inon finkatuta daudenik. Ez dut ikusten azterketarik arrazoi honengatik edo beste honengatik 2010ean berriro aupada izango dugula esateko. Krisiaren zipriztinak iritsiko zaizkigu, horren dudarik ez dago; inozokeria izango litzateke hori ukatzea. Gu nazioarteko lehian sartuta baldin bagoaude, horko krisiak guregan ere eragina izango du. Baina nere ustez, askozaz ere defentsa gehiago dauzkagu. Besteak beste, eraikuntza sektorea astuna gure ekonomian hedaduran ez delako hain astuna, inmobiliariak gutxiago daude eta sektore finantzarioa ez dago hain kuxxatua. Laburbilduta: lehenik, sektore batzuk bortitzak direlako edo indartsu dabiltzalako, esportazioak huts egiten ez badute behintzat. Bigarrenik, nik uste etxeko ariketak ondo eginda daudela, Lehendakariak esaten duen bezala; etxean, gure gurasoen estiloen egin ditugulako ariketak. Gaur zortzeko moduan gaude zor hori lehenago arindu dugulako. Administrazioak egin dezakeena hori da. Gero, politika publikoa

zara eta 30-40 urtetako kreditua negoziatzen dizute. Bankuak eta kuxxak merkatuko prezioetan jartzen dizute mailegua. Ez dira Caritas eta etekinak ateratzea dute helburu; bankuak dibidenduak banatzeko eta kuxxak lan soziala egiteko, haien metaketa egin ondoren.

**EBren Komisario Ekonomikoa, Joaquin Almunia, krisiaren oinarrian zikoizkeria edo diruzalekeria dagoela esan du. Adam Smith-ek aspaldi esan zuen kapitalismoaren oinarria hori dela?**

Almunia esan nahi duena ulertzen dut. Denak ibili dira sistema finantzario honetan agindu eta obeditu bukaerarik ez zuelakoan, eta amildegian aurkitu gara: harropuzkeria asko egon da, irabazi eta xahutze asko.

**Zikoizkeria eta dirugose horren lekuan justizia balego...**

Justizia behar da eta bakoitzari tokatzen zaiona ematean datza. Baina nork erabakitzen du bakoitzari zer eman. Mundu guztiak gehiago nahi du. Eta nork erabakitzen du? Zuretzako langile batek gehiago balio du eta gehiago irabazi behar luke, baina beste batek ez. Zu

nean, etxebizitza batek 45 balio baldin bazuen, 48 edo 49ko kreditua ematen zizuten, hurrengo egunean etxebizitza hori 50 milioira igo baitzitezkeen. Baina zer gertatzen da orain? Alderantzikoa. Gaurko egunean 45 balio zuenak 40 eskas balio du. Saldu beharrean gertatzen baldin bazara 35ean edo 36ean salduko duzu. Orduan, esaten duzu: «kontxo, nik kreditu bat daukat 48koa eta orain etxebizitza honek 36 bakarrik ematen dizkit, nahiago dut etxea bankuaren eskuan utzi eta kreditua ezabatu». Bestalde, lehengaien igoera ere aipatuko nuke: limoiak, zerealak, petroleoa, txatarra bera, produktu siderurgikoak %40 igo dira... Hor ere espekulazio piska bat egon liteke, ezta? Lehen aipatu duzu Chavez. Honek petroleoa dauka eta horrekin negoziatzen du.

**Lehen aipatu duzun ekonomilaria nobel saridun batek, Joseph E. Stiglitz-ek, 'laguntxoan kapitalismoa' teoria plazaratu zuen. Bertan munduko aberats askok irabaziaz nola lortu zituzten salataz du, modu guztietako 'laguntxo' bidez.**

Kapitalismoak kritika zorrotzak

san guztiak biluzik gelditzen dira egiaurrean. Eta orduan da benetako kontraesanik gabe jokatze-ko garaia.

**Mundu erdia gosez, bestea oparotasunean. Kapitalismoaren kontraesan bat agerian.**

Bai, baina nik uste dut jende gehienak zera pentsatzen duela: «total, nik gauza bat edo beste eginagatik, gauza guztiak berdin segituko diate, eta orduan...»

**Herritar batek esatea... baina politikari batek ez al du ardura gehiago eduki behar?**

Bakoitzak bere artaldearen soinuan dantzatzen du. Ezkertiarra goak ere entzun nahi dutena entzuten dute. Gero gauzen funtzionamendua ikusterakoan ez al zaizkio kontraesan eta duda muda asko sortuko? Ez al da denekin gertatzen piska bat?

**Baina araldea txiki geratu da munduaren egiaurrean.**

Norbaitek esango du: «guk aurrekontuen %0,7 bideratzen dugu hirugarren mundura. Eta gainera proiektu batzuk eramaten ditugu, gure ahalegina horretan dago». Esate baterako Alemaniak baina gehiago egiten dugu proportzioan,



da ekonomia eta ezkerreko eskuarekin zergak kendu, etekinak bildu gero banatzeko, batez ere gizarte zerbitzuetan.

**Eusko Jauriritzak ezin al du bere sistema ekonomikoa aldatu?**

Gu Europar Batasunean sartuta gaude, Frantzia eta Alemania dira gure bezerorik handienak. Gure eredu hau xake litzake: Europar Batasunean ekonomikoki hazi, sozialki ongizatez mardultasuna lortu eta berrikuntzaren erreferentzi izan Europar. Lehenago bi sistema zeuden, kapitalismoa eta sozialismo erreala edo komunismoa. Gero sozialistek erdibide bat asmatu zuten, Eskandinavian garatu dena; kapitalismoa humanizatu, ekonomia eta sozialki garatzeko. Guk Europar Batasunaren hildoa segitzan dugu eta ez dut uste europar batek beste sistemarik nahi duenik. Bestela galdetu beharko zaio. Neri, esate baterako, Eskandinaviako sistema gustatzen zait eta nik uste, hortik ibili behar dugula, gehiengoak nahi badu, noski.

**Nazioarteko Fondo Monetarioak larriena iristear dagoela esan du. Oraindik ez da beltzera iritsi eta bere eragin gure arta iritsiko da. Gaurko egunean denak 2009a txarra izango dela esaten dute, baina**

egoki-egoki eraman behar da, hau da, kontu publikoak zehatz mehatz aurrera eraman behar dira. Gure gurasoek egin izan duten bezala: bi pezeta irabaziz gero, bata badaezpadere gorde, eta bestea, agian, inbertitu edo gastatu; zerbitzu sozialetan adibidez.

**Baina gaur egungo gurasoen politika hori etxean eramatea gero eta zailagoa egiten zaie.**

Daukagun nahigaberik handiena etxebizitzena da. Nire ustez, Euskal Herrian azken 15 urte hauetan gertatu den gauzarik bereziena eta bitxiena da. Eskandalu bat izan da etxebizitzaren prezioen gorakada. Eta horri ez diogu inork jakin soluzio bide bat ematen. Nik askotan galdetzen dut, Hamburgoko langile batek zenbat lan ordu behar dituen etxebizitza ordaintzeko eta zenbat Tolosa edo Ordizian bizi den batek; agian 20 edo 25 urte, eta alemaniarrak 10 edo 12. Beste gaudinaviako sistema gustatzen zait eta nik uste, hortik ibili behar dugula, gehiengoak nahi badu, noski.

**Zentzu batean bankuaren esklabu bihurtzen gara.**

Bankuek ez diote etxebizitzetara prezioa jartzen. Eraikitzaileak egiten dituzte etxebizitzak. Bankura edo kuxxara kreditu baten eske joaten

hori erabakitzeke gai al zara? Nork erabakitzen du. Oso galdera inportantea da hau. Enpresa batean pertsonal buruak, kudeatzaileak edo dena delakoak erabakitzen du; baserri batera morroi joaten bazara bertako nagusiak; baina berdin irabazten al dute hemengo morroi batek eta hegoamerikar batek? Merkatuak agintzen du edo merkatu justiziadun batek? Eta hori nork erabakitzen du? Gehiengoak? Gutxiengoak?

**Lantegi batean, nagusiak agindu eta zuk hark esana bete. Ez dirudi batere demokratikoa.**

Horregatik daude sindikatuek eta alderdi politikoz ezberdinak. Sindikatuek funtzionatzen baldin badute...

**Langile bat, bozka bat.**

Ez salmentariko. Nik askotan esaten dut: enpresa batean dena ezin da; jorنال handiagoak eskatzen ditu, produktoa garestiago saldu, etekin handiagoak aterata eta zerga gehiago ordaindu. Aukera egin behar da askoren artean: bata edo bestea, dena ezinezkoa baita...

**Nondik dator kapitalismoaren krisi hau?**

Alde batetik, krisi finantzieroa aipatu behar da. Lehen kreditu edo mailegu bat hartzea joaten zine-

merezi ditu, eta egin behar zaizkio gainera. Baina beste gauza bat da kapitalismoaren aurkako errebelio bat dagoela esatea, ez dut ikusten gizartean hori. Orain nire ustez, erreforma sakonak behar ditu kapitalismoak, gaurko egunean neoliberalismo edo liberalismo berria aipatzen da; Joseph Stiglitz-ek neurriak jarri edo erreformak indartu behar direla dio, esate baterako zerga ekologikoak jarri. Ni horretan dudarik gabe ados egongo nintzateke. Baina aspaldiko esatera bat aipatuko dizut: lehenengo jan eta gero filosofatu.

**Europar ez dago goserik, hirugarren munduan bai.**

Kontradikzio pila bat dauzkagu; euskaldunok, europarrek eta baita hirugarren mundukoek ere. Denak koherenteak izango bagina, erabat..., familiatik edo bizitza pertsonaletik hasi eta politikaraino edota sistema irudikatzearentan... nik uste dut ez garelara erabat koherenteak. Kontraesan pila bat dauzkagu.

**Politikariak koherentziaren jauna eta jabeak dirudite; euren lezio, hizketaldi eta mitin izugarri koherenteekin.**

Bai, baina politikan ere entresaka asko egin beharra dago. Kontra-

eta ez al da neurri batean harro egotekoa ere. Ez da erabatekoa izango, gainera jakinaz, dakigun bezala, horrekin ez dagoela mundua iraultzerik eta eraldatzerik baizik eta iraupena.

**Mendebaldeko estatuek esku bategi apur bat eman eta besteaz ogi osoa kentzen diete.**

Guk kentzen diegu. Mendebaldeko gizarteak. Eta ez hori bakarrik, gero haruntza joaten gara turista bezala eta...

**Mendebaldea gaixo dagoela esan daiteke.**

Agian bai, gaixo egon daiteke. Baina ez dezake errudun egin mendebaldeko gizon edo emakume bat. Bere jatorria dauka, bere bizimodua dauka, eta ez zaio martiriota izateko eskatu behar. Bere gauza koherenteak egingo ditu eta bere familia hazitzen eta hezitzen nahiko lana badauka, askotan, ez da ere errudun kulpabilitate sentiduasartu behar.

**Bada beste kontraesan bat: guk ez dugu nahita gizon edo emakume hori errudun egingo, baina munduaren beste aldean, nahi gabe ere sortzen ditugu bikterienak.**

Kontraesan ez beteta gaude. Ia dena, denok...

# Bost proiektu gauzatuko dituzte Madrilek onarturiko diru laguntzarekin

**Hirigintza** » Presa berria, Musika Eskolaren kanpoaldea, Mustad-eko zubia eta Amarotz eta Igeraldeko birmoldapena.

## INIGO TERRADILLOS

Espainiako Gobernuaren toki inbertsiorako estatu fondoak herrietan burutu nahi diren proiektuak finantzatzeko diru laguntzak emango ditu. Honen arabera, 3.165.966 euro dagozkio Tolosari hainbat proiektu bultzatu ahal izateko. Oria ibaiko presa puzgarria, Musika Eskolaren berrikuntza, Igeralde plazaren birmoldapena, oinezkoentzat zubia Mustad-en eta Amarotz auzoaren birmoldapena dira diru horrekin burutu ahal izateko aurkeztu dituzten proiektuak Tolosako Udaletik.

Hain zuzen ere, atzo aurkeztu zuen Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, Udal Gobernuaren osatzen duten gainerako alderdietako zi-



Oinezkoentzat eta txirindularientzat egingo dute zubi berria. I. GARCIA

negotzietan lagundurik, onartu berri duten diru horrekin egiteko asmoa dutena. Orotara bost proiektu burutu nahi dituzte, guztiak ere 2009an hasi eta amaizuko dituztenak. Horixe baita, izan ere, diru laguntza onartzeko baldintzetako bat. 2009ko aurrekontuetan aurreikusitako obrak izatea ere baldintza litzateke, eta obra horiek bururutzeko langabezia dagoen jendea kontratatzea baita ere.

## Proiektuak aukeratzeko

Proiektuak aukeratzeko orduan hainbat faktore hartu dituzte kontuan: «batetik berehala aurkeztu beharreko proiektuak izan behar zuten, eta orduan garatuak edo erdi garatuak zeudenak aurkeztu behar ziren; bestetik, egun herria nola dagoen ikusi behar zen, hau da, obrak non dauden, non egin daitezkeen». Behin proiektu hauek onartzen dituztenean, apirila eta ekainaren artean hasiko dira lanetan, eta urte honen amaierarako bukatuak egingo dira.

## » PROIEKTUAK

- **Oria ibaiko presa puzgarria.** 1.800.000 euroko aurrekontua. 5 hilabeteko epea.
- **Musika Eskola kanpoaldea berrikuntza.** 320.000 euro. 4 hilabeteko epea.
- **Igeralde plazaren birmoldapena.** 270.000 euro. 5 hilabeteko epea.
- **Mustad-eko zubia.** 657.000 euro. 5 hilabeteko epea.
- **Amarotz birmoldapena.** 98.000 euro. 4 hilabeteko epea.

Haur Liburutegiaren parean egingo dute presa berria, orain dagoena kenduta. Hau haizearekin betetzen da, eta beharra dagoenean, ura gehiegi dagoen kasuetan, esaterako, hustu daiteke. Ondorioz, metro bat igokoa da gutxi gora-behera uraren maila, eta horrek bertan arrauna bezalako kirolak egitea ahalbidetuko du.

Musika Eskolaren kasuan, kanpoaldea berrikuntza dute, eta baita teilatua ere. Igeralde plaza eta Amarotz auzoaren kasuan, urbanizazioaren birmoldapena egingo dute. Mustad-eko zubia, Berazubikoa eta Eroskikoaren artean jongo da, eta oinezkoentzat eta txirindularientzat izango da.

## Sahararen aldeko janari bilketa egingo dute, gaur, Kultur Etxean

### ERREDAKZIOA

Sahararen aldeko Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak gaur goizean, Tolosako Kultur Etxean egingo dira gerturatzeko direnei tea eta kus-cus-a eskaintzen.

Bertan izango da janari bilketa-rako janaria uzteko aukera, goiz osoan zehar.

# KPIren igoeraren arabera finkatzea zergak adostu du Udalak

**Udala** » 4'9ko igoera onartu zuten zergentzat, baina, 1,9koa ezartzea adostu dute; urtariletik hasiko dira aplikatzen.

## I. TERRADILLOS

Pasa den urteko abenduan onartu zituzten udal aurrekontuak, eta bertan Udal zergen inguruko %4,9ko igoera aplikatzea adostu



Udaleko zinegotziak, atzoko aurkezpenaren. I. T.

zuten. Orain, ordea, «aurreikusitako igoera aldatu egin denez», %1,9a ezartzea erabaki dute.

Urtarrilaren 1etik aurrera pasaden urteko urriko ohiko batzarrean adostu zuten igoera aplikatu zieten udal zergeri. %4,9koa, hain zuzen ere. Jokin Bildarratz Tolosako alkateak atzoko aurkezpenaren azaldu bezala, «abuztuko KPI hartzen da kontuan, ondoren urrian onartu, eta bi hilabeteko epea utzi ahal izateko alegazioetarako».

## «Bestelako errealitatea»

Behin epe hori igarota, pasa den abenduan onarturiko udal aurrekontuetan, igoera hori adostu zuten, 4,9koa. «Errealitateak, ordea,

beste leku batera eramangaitu, aurreikuspenak ez dira bete», azaldu zuen Bildarratzek. Hala, azkenean, 1,9koa izan da KPI Euskal Autonomia Erkidegoan, eta egokiena, kopuru hori kontuan hartzea dela aurrekontuetan erabaki dute. «Bizi dugun egoera kontuan hartuta, eta hasieran onarturiko igoerarekin alde handia dagoenez, 3 puntu jeistea da egokiena», gaineratu zuen Bildarratzek.

Aldaketa honek ikuspegia zera eraginezkoa izango du, hau da, urtariletik aurrera hasiko da kontuan hartzen, datorren asteko batzarrean onartuko bada ere. Bestalde, onartu berri diren udal aurrekontuetan ere eragina izango du aldaketak; «165.000 euro gu-

txiango jasoko ditu Udalak ondo-rioz, eta horregatik neurriak hartu beharko dira, gastu gutxiago egingo, baina inbertsio gehiago, horrek ahalbidetzen baitu lanpostu gehiago sortzea». Halaber, zergeten hartutako neurria udal langileen soldatetan ere aplikatuko da, %2,4ko igoera aplikatuko zaielarik, eta ez 5,9, aurrekontuetan aurreikusita zegoen moduan.

Bestalde, Bildarratzek Udaleko talde guztiak eskertu zituen, «denen adostasunarengatik izan baita posible». Hala, Ezker Batua ere atzoko aurkezpenaren gongibidatuta zegoela aipatu zuen, baina «gobernukide ez denez, ez zaie egoki iruditu bertan egotea. Hori bai, ados zeuden hartutako erabakiarekin».

2-16 urte

bi urteko gela • jarduera • ikastola

**uzturpe**

herrian hazi eta hezi

ibarmaldan kalitateko heziketa euskalduna eskaintzen

dei lezaguztu eta bisita antolatuko dugu

martxularie ezazu abarriren 21 x 13ra

9 Oatara 12 30era 2 14 30erak 18 Oatara

lapena 2 2008 baina 14 941 811789 | Faxa 941087022 | harria@uzturpe.net | www.uzturpe.net

# Musika eta bertsoa protagonista izango dira lehen lauhilekoan

**Kultura** » Hurrengo kultur emanaldia hilaren 31n izango da; Euskal Kantu Liriko Berria entzungai izango da Santa Klaran.

## ERREDAKZIOA

Udaleko Kultur Batzordeak iazko kultur jardunaldien balantzea egitearekin batera hurrengo hilabete-etako ekitaldiak ere aurkeztu ditu. Oro har, bide beretik jarraituko dutela zehaztu zuten egindako agerraldian. Dena den, aurrekontuek adierazten dutenaren arabera, kultura arloari zuzendutako partidari %20ko murrizketak egongo dira, eta honek eragina izango du.

Antzerki, musika, dantza eta bertso ikuskizunez gozatzeko aukera izango da datozen hilabeteetan. Mundua Tolosan zikloarekin jarraituz, aurten hiru emanaldi izango dira. Horietatik bi udaberri izango dira, eta azkena, udazkenean. Leidorren izango dira artista hauen saioak: Wim Mertens, Dulce Pontes eta Juan Mari Beltran eta Kukai dantza taldearenak. Denek ere beraien azken lanak estreinatuko dituzte.

## Hasteko, Euskal Kantu Liriko Berria

Urtea hasi denetik hainbat kultur emanaldi gauzatu badira ere, hurrengo hilaren 31n izango da SGAEk antolatuta, Euskal Kantu Liriko Berriak izeneko emanal-



Euskararen astearen baitan antolatutako ekitaldien artean, Benito Lertxundiren kontzertua izango da. HITZA

diaz gozatzeko aukera izango da Santa Klaran, 20:00etan. Bertan izango dira Marta Velasco mezzosopranoa; Alberto Nuñez tenorra eta Juan Jose Ortega piano-jotzailea.

Euskaldunentzat ahozko musika oso garrantzitsua izan da betidanik. Euskal Kantu Liriko Berriak proiektuaren helburua kantual bildu eta ezagutaraztea da, mota ezberdinetakoak eta gaur egungo musikagileenak.

## Urtarrila

### ■ Euskal kantu liriko berriak.

SGAEk antolatuta Santa Klara elizan izango da emanaldia hilaren

31n. Proiektu honen helburua kantual bildu eta ezagutaraztea da, mota ezberdinetakoak eta gaur egungo musikagileenak.

## Otsaila

■ **'Erregea eta bufoia'**, Korrika kulturalaren baitan, otsailaren 7an izango da ikusgai antzerkia. Bertsoa eta antzerkia uztartzen dituen saio honek.

■ **Kaldereroen kontzertua**. Eduardo Mocoora Musika Eskolaren eskutik otsailaren 13an izango da.

■ **Inauterietako Haur Jaialdia**. Aiz Orralz elkartek antolatuta otsailaren 14an eskainiko dute emanaldia.

■ **Ostiral Meheko jaialdia**. Inauterien baitan Aurpegik antolatutako jaialdia da hau.

■ **'Animaliak'**. Haurrentzako dantza eta antzerki emanaldia izango da otsailaren 5ean.

## Martxoa

■ **Ahoz aho jaialdia**. Asvineak antolatuta bigarren aldiz ospatuko da jaialdi hau. Ordu eta eszenatoki ezberdinetan izango dira saioak ikusgai, otsailaren 9tik 15era bitartean.

■ **Pirritx eta Porrotx**. Galtzaundi euskara taldeak antolatuta, Piratak emanaldi berria aurkeztuko dute Pirritx, Porrotx eta Mari motots

pailazo ezagunek martxoaren 14an.

■ **Bertsojazz**. Euskararen astearen baitan, bertso jazz izango da martxoaren 28an. Bertsolari ezagunek musikarekin batera inprobisatu beharko dute.

■ **Oteiza Tolosan**. Martxoaren 6tik 28ra bitartean hainbat ekitaldi egingo dira artista ezagunaren oroimenez.

## Apirila

■ **Benito Lertxundi**. Euskararen astearen baitan kontzertua eskainiko du musikari oriotarrak apirilaren 3an.

## Mundua Tolosan

■ **Wim Mertens**. Artista belgikararen kontzertua maiatzaren 19an izango da.

■ **Dulce Pontes**. Abeslari portugaldarra ekainaren 6an izango da Tolosan.

■ **Juan Mari Beltran eta Kukai dantza taldea**. Txalaparta ikuskizun berria aurkeztuko dute urriaren 17an.

## Erakusketak

■ **'Tolosa, Bihotz Begietan'**. Juan Jose Agirre margolari tolosarraren erakusketak ikusgai egongo da Aranburu Jauregian, otsailaren 14ra bitartean.

■ **Oteiza, bizirako proiektua**. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Jorge Oteiza Fundazio Museoa antolatutako erakusketak dau hau, artista oriotarraren pentsamenduaren eta obraren inguruan. Martxoaren 6tik 28ra egongo da ikusgai.

■ **Sida/Ihesa, 8 artista 8 hausnarketa**. Medicus Mundi erakundeak antolatutako martxoaren 6tik 21era ikusgai izango da Aranburu Jauregian.

# Zaldunita Bezperako danborrada, 19:00etan

**Aisia** » Ekitaldiari indarra emateko asmoz, ordu-tegia aldatzea erabaki dute Jai Batzordekoek, eta haurrenaren ostean jarri.

## ERREDAKZIOA

Hilabete eskas geratzen da Inauterriak hasteko, eta aurtengoak aldatzea batzuekin datoz. Horien artean nabarmentzekoak dira karroza eta konpartsen ibilbidearena, eta Zaldunita Bezperako danborrada ordu-tegiarena.

Bigarren honi dagokionean, zenbait eztabaidaren ostean, azkenik, Zaldunita Bezperan, 19:00etan ospatuko da. Izan ere, iazko Inauterrien balantzea egiteko garaian, Jai Batzordeak atera zuen ondorioetako bat izan zen, gero eta jende gutxiago biltzen zela orduara arte, gaur egiten zen danborrada ikustera. Gainera, aipatzekoa da,



Orain arte gauez egin izan da Zaldunita Bezperako danborrada. I. TERRADILLOS

ekitaldi hau dela Inauterrien etorrera iragartzen duena. Horregatik, ohitura hau galtzen ez uztearen, aurten, aldatzea erabaki dute, eta arratsaldera pasatzea. Hau, haurrenaren ostean egingo da. Honenbestez, 19:00etan, Triangu-

lo plazan elkartuko dira danborradan parte hartuko duten elkarrekin, eta handik abiatuko dira ohiko ibilbidea egiteko.

Dena den, gauez ateratzearen ohitura ez da erabat galduko. Berauzi elkarteko kideetako batzuek

arratsaldez atera ezin dutenez, beti bezala gauez irteera erabaki baitute. Ordu-tegi eta ibilbide finlarrik gabe astinduko dituzte danborrak. Beraiekin batera izango dira Konpainia Ingelesekoak. Hala, arratsaldez eta gauez entzun ahal izango dira danbor soinuak hirian.

Bestalde, aste honetan egindako bileran entseguak egiteko egunak ere finkatu zituzten. Hauak, otsailaren 9an, 10ean, 11n, eta 12an izango dira. Kultur Etxean izango dira saioak, 20:00etatik aurrera. Azkenik, entsegu orokorra otsailaren 17an egingo da, Musika Bandarekin batera.

**villabona** optika

**%30** eko deskontua monturetan

Kale Berria 23A • Villabona • Tel.: 943 11 18 40



## Markel Olano Leaburu-Txaraman izan da

**LEABURU-TXARAMA** • Atzo Markel Olano Gipuzkoako ahalduen nagusiak Leaburu Txarama bisitatu zuen Rafa Uribarren Foru Aldundiko Landa Garapeneko diputatua eta Maite Peñacoba bere aholkulariarekin batera. Mari Kruz Agirre alkateak eta bi zinegotzik harrera egin zieten. Leaburuk duen arazorik handiena urarekin lotutakoa da, «matxura asko izaten di-

tugu eta zaharkituta dago egitura». Horretaz gain, bileran proiektuen berri eman zuten udalkideek: irisgarritasun plana, pilotalekuaren berritzea, ludotekaren berritzea, balio anitzeko gela bat... Lehenik bilera egin zuten eta gero Leaburu zertxobait ikusi zuten. Ondoren, Txaramara ere jaitsi ziren hura ere ezagutzeko. JESUS MARIPEMAN

## Laburrak

### Aurre-matrikula otsailaren 2tik 13ra bitarte izango da

**VILLABONA-ZIZURKIL** • Jesusen Bihotza Ikastolan 2009-2010 ikasturterako aurre-matrikula hastear dago, hain zuzen otsailak 2tik 13ra arte izango baita. Ikastolaren eskaintza gertutik ezagutzeko, datoren astean ate irekiak egingo dituzte. Ikastolako proiektu eta zerbitzuei buruzko informazio zabalago jasotzeko aukera ematen du honnek. Zizurkilen etzi eta Txerminen hilak 29, bietan ere 12:45ean eta 17:15ean izango dira. Harremanetan jartzeko 943 69 23 21 telefonoa edo [billabona@ikastola.net](mailto:billabona@ikastola.net) korreoa erabili daitezke. Informazio zabalagoa izateko [www.jesusenbihotzaikastola.com](http://www.jesusenbihotzaikastola.com) webgunea dute.

### Ikasle guztien arteko bazkaria otsailaren 1ean

**AMEZKETA** • Amezetako ikastetxean ibilitako bazkaria egiteko asmoa dute otsailaren 1ean. «Gure andereño izan ziren Maritxu, Joxepi eta Kororekin Behartzana jate-txean bazkari bat egin nahi dugu». Joateko asmoa duenak alde zurrik deitu beharko du abisatzeko: 943 65 05 99, 943 24 00 21, 652 74 73 20 eta 669 479 493. Beraz, ikasle guztien arteko bazkaria izango da.

### Jaiak antolatzen hasteko lehen bilera etzi izango da

**IKAZTEGIETA** • Etzi, hilaren 26an, hain zuzen, ikaztegiako udal-txean jaiak buruzko lehen bilera egingo dute 20:00etan. San Lorentzo jaiak antolatzen hasteko lehen pausoa ematen hasiko dira (abuztuaren 13an). Herritar guztiei luzatzen zaie deialdia eta azaltzea nahi dute antolatzaileek, honela ideia eta proposamen gehiago jasotzeko.

### Gaur Behar-Zana eta Urnietaren arteko finala

**IRURA** • Gaur Iruran T rinketeko elkarteen arteko Gipuzkoako Txapelketako finalak jokatu dituzte 13:30etik aurrera. 5. partidaren Behar-Zana (Jon Ander Esnaola) eta Urnieta ariko dira aurrez aurre, eskuz banaka nagusien mailan.

## Donostia UPVren aurka jokatu du Ibarrek gaur

**Ibarra** » Belabietan izango da partida; joanekoan 4-2 galdu zuten etxeok eta puntuak lortzeko ahalegin berezia egingo dute.

Joaneko norgehiagokan Donostiako taldeak 4-2 irabazi zion Ibarriari. Etxeko ohiko taldeko mutilek ezin izan zuten jokatu eta orduan zelairatu ziren Ibarriko gazteek oso itxura ona eman zuten jokoa, aurkaria azken minutura arte estutuz.

«Giro ona» espero dute gaurko norgehiagokan. «derbi interesgarriaren bat delako besteak beste, eta Donostiako taldeak ere borrorokatu duelako hiru puntuak lortzera».

Bestalde, probintzialesko jubenilak bihar 11:30ean ariko dira Belabietan ere, kasu honetan Tolosako Eskolapioen kontra izanik.

### ERREDAKZIOA

Gaur Tolosako Belabieta kiroldegian Ibarra eta Donostiako UPV ariko dira aurrez aurre areto futbollean. 18:30ean hasiko da norgehiagoka.

Txubelek plantilla osoa izango du eta «aurreko jardunaldian baino itxura hobea ematen saiatuko dira hiru puntuak lortzeko».

## Sendi ekintzak gaur bilera egingo du

### ERREDAKZIOA

Ibarriko Sendi ekintzak ohiko batzarra egingo du gaur. 19:30ean lehen deialdian eta 20:00etan bigarren, elkarteen lokaletan. Gaien artean garrantzietsua zuzendaritza batzordekoaren erantzeta eta aldatetako izango da, baina badira beste hainbat intereseko gai ere: kontuen egoera eta hauen ingurua, urtean zehar egindako ekintzak gogoratu, eta abar.

Kuotei dagokionez, hauek ordaintzeko (25 euro) epea hiru hilabetekoa da. Beraz, martxoaren 31ra arte egin daitezke. Ordaintzeko hiru helbideratzea eskertuko dute zuzendaritzaokoei, «lana errazte-

ko». Kontu zenbakiak ere eman dituzte: 3035 0141 83 141000 5865 (Euskadiko Kutxa) eta 2101 0043 1100 0005 1136 (Kutxa).

### Festa irekia otsailaren 7an

Bestalde, sagardoaren irekiera eta erakundearen festa desberdina izango da. Otsailaren 7an (larunbata) egingo da eta erakunde baxkide guztientzat izango da. Bertan luntx bat emango dute 19:30ean. Irekia da festa hau, haur, gazte eta abarrei zuzendutakoa, hain zuzen. Festaren antolakuntzan parte hartzeko interesa duenak honako telefono zenbakira deitu beharko du: 635 757 048.

## Hilberria



**JOXE MARI ESNAOLA OTAEGI**

Urtarrilaren 23an hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-

Aitta, mila esker une gazi eta gozoetan eman diguzunagatik.  
Muxu handi bat bihotzez eta gero arte.

**BEIZAMA**  
2009ko urtarrilaren 24a

Oharra: Hileta elizkizunak gaur, larunbata, arratsaldeko 18:00etan, Beizamako San Pedro parrokian izango dira.

## Urteurrena

I. urteurrena

**FERMIN UZKUDUN**  
(Aistitxo baserrikoa)



Duela urtebete hil zen Aistitxo-ko Fermin Uzkudunen mezaurrena BIHAR, igande, 11:00etan izango da, Errezilgo eliza nagusian.

**ERREZIL**  
2009ko urtarrilaren 24a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



## Merkatarien onddoek diru ugari utzi dute herrian

**LEITZA** ● Herriko merkataria zentruetan onddoen bila jende ugari ibili ondoren, hiru onddo saridunak aurkitu dituzte jadanik. Zozketa egin ostean, lehen saria Maritxu Lazkanok lortu du. Gauzak honela, 500 euroko erosketa balea eraman du etxera Maritxu Lazkanok. Bigarren saria Sagrario

Razkinek irabazi du, hau da, 300 euroko erosketa balea. Azkenik, hirugarren sarituak 200 euroko balea lortu du, Ana Zabaletak hain zuzen ere. Saridunek herriko 33 tailer, taberna eta komertziotan eginiko zozketan hartu zuten parte, orain hauetan erosketak dohan egin ahal izango dituzte, sa-

ria amaitu arte behinik behin. Orain Leitzako dendari, tabernari eta abarrek buruan duten hurrengo pausoa Merkataria Elkartearen saria izanen da, aurrerantzean elkarrekin gauzak antolatzen jarraitzeko. Oraindik ez zehazturik ez dagoen arren, jadanik lanean jarriak dira. **HITZA**

## Leitzak bat egin du Amaiur gogoratzeko ekimenarekin

**Politika** » Gaztelak Nafarroa konkistatu zuen Amaiurko guduan 1512an; 2012. urtean 500 urte beteko dira.

### ERREDAKZIOA

Amaiur 1512-2012 Nafarroa Bizirik taldeak ekimen antolatu otsailaren lehen, Amaiurko gudua gogoratzeko. Gaztelak Nafarroa konkistatu zuen sasoi hura biziberritzeko.

Euskal Herriko udal eta kontzejuguztietan egin diete deialdia, batzarretan bat egite testua onar dezaten. Ekimenarekin bat egiten lehengotakoa Leitza izan da. Xabier Zabalo alkatea, aurkezpen ekitaldian Iruñean izan zen iragan ostiralean.

### UPNren ospakizuna

UPNren gobernuak 1512ko konkista oroitzeko eratu berri duen batzordearen harira, Nafarroa Bizirik ekimeneko kideek ohartarazi dute Nafarroa bere konkista ospatuko duen munduko lehen herria izanen dela. Izan ere, aurreko astean batzorde horren aurkezpenean Miguel Sanz presidentek esan

zuen, 1512an Nafarroa Gaztelara «batu» izana «ospatzea» da haien asmoa.

### Nafarroa Bizirik Amaiurren

Nafarroa Bizirik ekimena, ordea, bere aldetik dabil 1512. urtea oroitzeko lanetan, eta abiapuntu gisa, ekitaldia antolatu du Amaiurren otsailaren 1erako. Nafarroa Bizirik ekimenak Amaiur «ikurra» dela aldarrikatu zuen egitarauaren aurkezpenean.

Zehazki, ekitaldia goizean, 11:00etan izanen da, eta orain arte aurreratu dutenaren arabera, lore eskaintza eta aurrerakua izanen dira «1512ko hildakoak oroitzeko».

Halaber, hori «hasiera» besterik ez dela izanen iragarri zuten, Nafarroako konkista «oroitzeko eta historia ezagutarazteko» ekitaldi gehiago antolatuko dituzte eta.

### Leitzako Udala ekimenarekin

Ekimeneko partaideen arabera, 1512. urtea soberaniaren galeraren urtea izan zen, «oraingeureburuaren jabe izateko eskubidea izan behar dugula erakusten duena». Haien azken helburua Nafarroako subiranotasuna berreskuratzea dela ere nabarmendu dute.

Halaber, datozen asteotan uda-

len atxikimenduak jasotzea espero dute. Izan ere, dagoeneko bidali dute Euskal Herriko udal guztiakira manifestu bat, konkistaren bosgarren mendeurrena oroitzeko atxikimendua eskatuz. Baztango eta Gernikako Udaletan, esaterako, aho batez onartu dute manifestua mozio bitartez, eta beste herri batzuek ere jada adierazi dute atxikimendua; hauen artean aurkitzen da Leitza, Lekunberrirekin batera. «Denon artean historia ulertzeko beste modu bat indartu nahi dugu», adierazi zuen Leitzako alkatea, Xabier Zabalok.

Era berean, Amaiur 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimenaren bozerramaila Gaizka Arangurenak azpimarratu duenez, 1512. urtean gertatutakoa «ekintza militarra» izan zen. «Ondorio juridiko instituzional eta linguistikoak izan dituen ekintza militarra», argitu du. Ondorioz, «ez da egokia konkista estali nahi izatea bestelako ospakizunekin», azaldu du Nafarroako Gobernuak aipatuz. Halaber, Espainiako Gobernuarekin elkarlanean, 1212ko Navas de Tolosako bataila ere ospatuko du Nafarroako Gobernuak, eta hori ere «sala-garria» da, Nafarroa Bizirik ekimenarendako.

## Inauterien denboraldia gaur hasiko da ihoteekin

**Leitza** » Gaur hasiko dira 2009ko Ihoteak; hurrengo egunetarako ekitaldi ugari antolatu dituzte leitzarrek, asteartearekin amaitzeko.

### A. IMAZ

Leitzako Ihoteak gaur hasiko dira. Lau egunetan zehar hamaika ekitaldi ikusi eta bizitzeko aukera egonen da, egunez zein gauez.

### 14:00etatik aurrera


Eskalariaren bazkaria ospatuko dute Aurreran 14:00etan. Doan izango da 2009ko Ihoteen barneko eki-

men hau. Sabelak asetu ostean, 16:00etan, Eskea egingo dute herriko etxeetan trikitilarien, gaiteroen, txistularien, atsauratuen... laguntzaz.

Lehen egunarekin amaitzeko, Karaokea Gaztetxean, hori bai, badaezpada goizaldeko ordu txikietan, 02:30ean.

### Bihar, jarraipen oparora

12:00etan Atsarek plazatik irtengo dira, gurdiak berriz industrialdetik. Txu txu trenaren erria barna ibiliko da. Atsaren bazkariaren ondoren txaranga eta Bertso Jaialdia 18:30ean. Eguna amaitzeko, Laiotz taldearen musika.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



8°  
4°

GOIZA EURIA  
ARRATS. EURIA  
BEROENA 8°  
HOTZENA 4°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Leitza.** Ithoete: 14:00etan eskalarien bazkaria Aurreran doan; 16:00etan eskea herriko etxeetan; trikitilariak, txistulariak, atxauretuak, gaiteroak...; 02:30ean Atakabeltza Gaztetxean Karaokea.

### Musika

■ **Tolosa.** Captain Nemo eta Coll Circus musika taldeen emanaldia Bonberenean 22:30ean.  
■ **Tolosa.** Abiba diskojaia Beotibar pilotalekuan 22:00etatik 05:00etara.

### Deialdiak

■ **Aduna.** Asvinenea Kultur Elkarteak III. Poltsikoko Antzerki Lehia-keta antolatu du profesional zein amateurrentzat. Informazioa eta izen-ematea, [www.asvinenea.com](http://www.asvinenea.com) webgunean.  
■ **Amezketak.** Amezketako ikastolan ibili direnak elkartzeko asmoa dute, euren andereño izan ziren Maritxu, Joxepi eta Kororekin Behartzana jatetxean bazkari bat eginez. Harremanetan jartzeko telefono zenbaki hauetara: 943 65 05 99 (Arantxa), 669 47 94 93 (Joseba), 943 24 00 21 (Itxaso).  
■ **Ibarra.** Alurr Dantza Taldeak *Sua* ikuskizun berria aurkeztuko du urtarilaren 30ean, 22:00etan, Belabietako kiroledegian. Uzturpe Ikastolak antolatu duen Kultur Astearen barruan. Sarrerak salgai daude Uzturpe Ikastolan, Karlatz eta Zubiaurre tabernetan eta Tolosako

Denak, Orbela eta Raku tabernetan.  
■ **Tolosa.** La Jara Extremadurako elkarteak txerri hiltzearen festa ospatuko du asteburuan, produktu eta gozo tipikoak dastatuz. Gaur bertan bazkaria eta afaria izango da eta bihar, bazkaria egingo dute. Prezioa: 12 euro. Izen-ematea, 675 707619 telefono zenbakian.  
■ **Tolosa.** Inauterietarako karroza eta konpartsetan izena eman daiteke Kultur Etxean bertan goizez, 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara.  
■ **Tolosa.** Veleta-Aiz Orratz elkarteak 75 urte beteko dituen argazki zahar eta berrien erakusketa ari da prestatzen eta horretarako materiala biltzen ari dira. Bazkideek, bazkide ohiek eta zerbaite dutenek, elkartera bertara eraman dezakete. Informazioa

655 738739 telefono zenbakian.  
■ **Tolosa.** Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu Itxaropena* lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin elkartea ari da aurrera eramaten janari bilketa: arroza, leka-leka, pasta, hegaluza oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak. Hilaren 31ra arte egingo dute bilketa.  
**Zinema**  
■ **Villabona.** Gurea aretoan *Un gran día para ellas* filma emango dute gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 21:30etik aurrera.  
■ **Tolosa.** Leidor aretoan, *Mision en Mocland* filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan, 19:30ean, *Un gran día para ellas*; *Gomorra* filma emango dute gaur 22:30ean, bihar 22:00etan eta etzi (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

### Erakusketak

■ **Alegia.** Marce Tenaren begiei buruzko margolanak ikusgai asteartetik igandera bitarte Jubilatuen tabernan. Bizi-biziak eta denetan begia da jorratzen duen gaia.  
■ **Amasa.** Egoitz Bengoetxeak eta Gorka Lopezek Alpeetan ateratako argazkien erakusketa Amasako Kultur Etxean, *Alpeetako argiekin jolastuz* izenburupean.  
■ **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarraren buztin egosi artelanak ikusgai daude Lanbroa tabernan.  
■ **Tolosa.** Jose Enrique Ceberioaren olio-lanak eta akuarelak ikus daitezke Itaie tabernan.  
■ **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosarraren margolan erakusketa ikusgai dago Aranburu Jauregian, otsailaren 14ra arte.

### Kirola

■ **Villabona.** Villabona - Zubieta goizeko mendi irteera antolatu du Aizkari mendi elkarteak 25erako. Egitasmo berria da. Informazio gehiago, [www.aizkardi.com](http://www.aizkardi.com) helbide elektronikoa.  
■ **Alegia.** Iganderako Aralarren mendi irteera antolatu du Alegiako Mendi Asanbladak, Txindokiko zirkuitoa egingo dute.  
**» GUARDIAKO FARMAZIAK**  
■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5.112.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5.112.  
HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

## LIBURUA SALGAI

Salmenta:  
Liburuaren prezioa: 18 €  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140 €
-----------------	--------------------

Salmenta puntuak:  
• Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bulegoetan,  
• Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendetan,  
• Ibarrako Lurdes liburudendan,  
• Villabonako Basajaun liburudendan.

